EAJ PNV

ONENA EMATEKO GARAIA

HAUTESKUNDEETARAKO EGITASMOA - ILDO NAGUSIAK

HAUTAGAIAK

02

Maite Garrastazu Aranguren

43 urte.
- Administrazio zuzendaria.
- Merkataria.

03

Javier Zarraonandia Zuloaga

39 urte.
- Zuzenbidean lizentziatua.
- Tributazioan masterra.
- Urola Kosta Udal Elkarteko presidente ohia.
- Ingurugiro zuzendaria Gipuzkoako Foru Aldundian.

04

Maribel Albizu Barrenetxea

68 urte.
- Administraria.
- Gizartekintza zinegotzia (gizarte zerbitzuak).

05

Iban San Martin Hernandez

27 urte.
- Aplikazio informatikoetan goi teknikaria.
- Kirol erakundeen kudeaketan masterra.
- Surfeko marketing manager graduondokoa.
- Kirol zinegotzia.

06

Pilar Gutierrez Martin

40 urte.
- Magisteritzan diplomatua.
- Udaltzain arduraduna.

07

Mertxe Oses Eizmendi

52 urte.
- 30 urtez zuzendaritzako idazkari.
- Enpresen zuzendaritzan masterra.
- PNL masterra.

08

Ixidor Larrañaga Ayerbe

40 urte.
- Analista programatzailea.

09

Oihana Etxaondo Izagirre

30 urte.
- Enpresa Zientziatan lizentziatua.
- Kutxako langilea.

10

Sabino Ezenarro Atorrasagasti

43 urte.
- Industri teknikaria.

11

Nagore Fernandez Francesena

38 urte
- Administraria.
- Ongizate batzordekidea.

12

Jesus Arana Gomez

47 urte.
- Ingeniaritza teknikaria.
- Enpresaria.

13

Guido Bohm

42 urte.
- Industri ingeniaria.
- Entrenatzailea.

14

Irune Urbieta Alberdi

34 urte.
- Haur Hezkuntzan lizentziatua.
- Irakaslea.

15

Luis Uribarri Aranguren

73 urte.
- Jubilatua.

16

Nekane Iribar Iriondo

46 urte.
- Magisteritzan diplomatua.
- Irakaslea.

17

Francisco Javier Murgoitio Lazkano

51 urte.
- Mediku zirujanoa.

18

Iratxe Zorrozua Egiazabal

38 urte.
- Geologia Zientziatan lizentziatua.

19

Juan Silvan Iribar

65 urte.
- Jubilatua.

20

Mª Aloña Bidezabal Larrañaga

36 urte.
- Administraria.

21

Kepa Murua Arregi

82 urte.
- Jubilatua

ONENA EMATEKO GARAIA

EAJ PNV ZARAUTZ

IMANOL LASA ZEBERIO

37 urte.

- Zientzia Politikoetan eta Soziologian lizentziatua Deustuko unibertsitatean.
- Ikasketa Kooperatiboetan masterra Deustuko unibertsitatean.
- Enpresen Kudeaketan eta Administraritzan masterra. MBA. ESTE.
- Ikastolako irakasle eta Batxillergoko arduraduna.
- Euskaliteko senior ebaluatzailea.
- EAJ-PNVko Nazio Asanbladako presidente ohia.
- Lau urtez EAJ-PNVko GBBko kidea (Gipuzkoako exekutiba).
- Sei urtez Zarauzko Uri Buru Batzarreko presidentea.
- Markel Olano Ahaldun Nagusiaren kabineteko kidea.
- Partaidetza Zuzendaria Gipuzkoako Foru Aldundian.
- Zarauzko alkateordea, eta Turismo eta Euskara zinegotzia legealdi honetan.

LIDERGOA ETA ERABAKITZEKO GAITASUNA

Azken hamarkadetako egoera ekonomikorik zailenetakoa bizi dugu, eta horrek nabarmen baldintzatzen du Udalaren egitekoa. **Gardentasunaren, eraginkortasunaren eta zorroztasunaren alde egiteko unea da kudeaketan, inoiz baino gehiago, baina ilusioari uko egin gabe.** Lan egiteko, mugitzeko eta lehentasunak finkatzeko garaia da. Arduraz jokatu behar dugu, herritarren behar nagusiei erantzun eta diseinatuta dauden proiektu estrategikoak aurrera ateratzen laguntzeko.

Herri irekia, kohesionatuta, lehiakorra eta gure nortasunean errotutakoa nahi dugu. Zarautzek ilusioa behar du. Aire freskoa, eta bultzada berri bat. Udalean gobernu-talde sendoa eratzea da bultzada hori emateko bide bakarra. Ideia argiak, lidergoa eta erabakitzeko gaitasuna edukiko dituen gobernua. Za**rautzen aurrerakuntzaren buru izan nahi dugu, zintzotasunean, gertutasunean eta sen onean oinarritatuz.** Denon artean eraman nahi dugu herria aurrera. Zure konfiantza eskatzen dut kudeaketa proiektu anbizioduna eta aldi berean errealista burutzeko. Ametsak izango ditugu iparrorratz, oinak lurretik kendu gabe.

Dokumentu honetan, geure lan ildo nagusietako batzuk aurkezten dizkizuegu, labur-labur, lan-taldearekin batera. Eskarmentua, gaztetasuna, balio eta konbikzio sendoak, eta kudeaketarako gaitasuna uztartu nahi izan ditugu. Garai zailak dira, baina Zarautzengan eta zarauztarrongan konfiantza osoa dugu, eta busti egingo gara. **Onena emateko garaia da.**

Imanol Lasa
EAJ-PNVren Zarauzko alkatetzarako hautagaia

EAJ PNV ZARAUTZ

1 ADMINISTRAZIO IREKIAGOA ETA GARDENAGOA

- Legealdi osoko helburu estrategikoak eta lan ildo nagusiak jasoko dituen **Kudeaketa Plana onartu**.
- Udaletxea gutxienez astero bi arratsaldetan zabaldu.
- **Udalak ematen dituen dirulaguntza guztien kudeaketa integrala**: Teknikari bat espresuki bideratu dirulaguntzei buruzko aholkularitza eta tramitazioa eskaini dezan, prozedurak arinduz.
- Gobernu egokia sustatu, **jokabide etikoaren dekalogoa** onartuz.

ZORROTZAGOA ETA ERAGINKORRAGOA

Udaleko departamentuen murrizketa eta berrantolaketa:

1. ESPARRU SOZIALA: Politika soziala, Heziketa, Berdintasuna, Inmigrazioa, Hirugarren adina, Ongizatea, Prebentzioa.
2. KULTURA, EUSKARA ETA GAZTERIA.
3. UDALERRIAREN SUSTAPEN EKONOMIKO ETA TURISTIKOA: Industria, Merkataritza, Ostalaritza, Sustapen ekonomiko eta turistikorako jarduerak. Departamentu hau izango litzateke krisi ekonomikoari aurre egiten laguntzeko euskarri nagusia.
4. GOBERNANTZA-PRESIDENTETZA: Herritarren arreta, Idazkaritza, Ekonomia departamentua, Herritarren partaidetza, Departamentu guztien dirulaguntza eta baliabideen kudeaketa, 21 Agenda.
5. HIRI-SEGURTASUNA.
6. HIRIGINTZA PLANGINTZA ETA OBRAK: Hirigintza, Obrak, Saneamendua, Azpiegiturak, Garbiketa eta Zerbitzuak oro har.
7. KIROLAK.

- **Lanpostuen balorazioari aurre egin.**
- **Gastu korrontearen murrizketarako Krisiaren aurkako Plana onartu.**

PARTAIDETZA GEHIAGO ETA HOBEA

- **Zarauztar elkarteen erregistro ofiziala-sarea** sortu.
- **Kontseilu Soziala** eratu, urtean behin Zarauzko 40-50 ordezkarik herriaren eta udalaren egoera azter dezaten.
- **Legealdirako partaidetza egitasmoa** finkatu.

KUDEAKETA ERAGINKORRA ETA ARINA

DIRU-LAGUNTZEN TRAMITAZIO INTEGRALA

EAJ PNV jakin eta egin

2 ENPLEGUAREKIKO ETA JARDUERA EKONOMIKOAREKIKO KONPROMISOA

1.298 **LANIK GABEKO zarauztarrak**
2011ko martxoaren 31

IRITA

70.991 metro koadroko azalera izango duen eta **berrikuntza eta garapen jardueretan** oinarrituko den enpresagunea. Oteitza Politeknikoaren Aeronautika Zentroa barne hartuko du. Esleitzeko prest dago proiektua eta **EAJ-PNVrentzat funtsezkoa da**.

ERROTABERRI

195.000 metro koadroko **industriagunea**, **Salberdingo enpresak birkokatzeko** ezinbestekoa.

BESTELAKOAK

- **Beste erakunde publikoekin elkarlana bultzatu** (Urola Kostako Udal Elkartea, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza).
- Herriko enpresei babesa.
- Baserritarrentzako eta landa eremuentzako babeserako egitasmoa garatu.
- **Tailer okupazionalak eta laneratze egitasmoak sustatzen jarraitu.**

IRITA I+G+i

LANERATZE ETA FORMAKUNTZA PROGRAMAK BULTZATU

ENPRESA BERRIEN SORRERA LAGUNDU

BABES HANDIAGOA HERRIKO ENPRESENTZAT

EAJ PNV ZARAUTZ

3 ONGIZATEA

+ 20%

2011n gastu sozialera bideratuko den aurrekontuaren igoera

KRISI GARAIAN, EZIN DA INOR BAZTERREAN UTZI

- Behar oinarrizkoenak asetzeko **laguntzak kudeatu.**
- **Lehentasuna gastu sozialari eman.**
- **Elkarteentzako egoitza duinak ahalbidetu.**
- Nagusien Kontseiluarekin eta jubilatuen elkarteekin elkarlanean aritu.
- **Hirugarren adinekoentzat zerbitzu osagarriak martxan jarri**.
- **Baliabide sozio-sanitarioen eskaintza sustatu**.
- Zerbitzu Sozialak eskaintzen dituzten baliabideen eta departamenduaren jardueren **gida informatiboa** argitaratu.
- Lana eta familia uztartzeko eta amatasuna/aitatasuna bultzatzeko neurriak.
- Sexu arteko berdintasuna sustatzen jarraitu. Udalaren aurrekontuetan **Genero Txostena** txertatu.
- Prebentzio Zerbitzua hobetu, martxan diren egitasmoak aztertuz eta egokituz.
- Herriko Anbulategian Eusko Jaurlaritzak hitzemandako medikuntza espezialitateen eskaintza bermatu.

Maribel Albizu Barrenetxea

INOR EZIN DA BAZTERREAN GELDITU

4 ETXEBIZITZA

GELDITUTAKO PROIEKTUAK AURRERA ATERA

1.378 **2010eko uztailean Etxebideren zerrendetan izena emanda zeuden zarauztarrak**

Zarautzen etxebizitza berririk ez da eraiki aspaldian, eta egoera horri konponbidea eman behar zaio. Ondorengo promozioen **egutegia eta aurrekontuak finkatu, eta prozedurak, tramiteak eta obrak arintzea** proposatzen dugu.

SALBERDIN

1.095 etxebizitza, %53 babestutakoak.

ALDAPETA SANTA ANA

60 BOE, horietatik 48 tasatuak.

SALBERDIN faseka GARATU 1.095 etxebizitza

BRIGADA-AMILLUBI

136 BOE eta hamabi apartamentu dotazional.

SALBIDE ZAHARRA

Eremua birgaitu eta urbanizatu, 10 BOE eraikiz, eta bertako bizilagunei etxe berria erraztu.

EAJ PNV jakin eta egin

ETXEBIZITZA

AZKEN PORTU GOIA

Lanpardo kalerako proiektu berria proposatzen dugu, besteak beste auzoko irisgarritasuna hobetuko duena.

EZAUGARRIAK

- Babes publikoa izango duten 60 etxebizitza eraiki.
- Garajeak egin, bizilagunen eskariaren arabera.
- Irisgarritasuna hobetu, Azken Portu Goia eta Salbide lotuko dituen igogailu berri baten bitartez.
- Ekipamendu publikoak birkokatzeko egoitzak lortu.

IGOGAILU BERRIA AZKEN PORTU GOIAN

BESTELAKO NEURRIAK

- **Zarauztarrei lehentasuna eman,** etxebizitza lortzeko ondorengo baldintza eskatuz: herrian 10 urtez erroldatuta egotea jarraian, edo aldizkako 15 urte pilatzea.
- **Hegoalde eremua birmoldatzeko** beharrezko tramiteak eta lanak aurreratu.

5 MUGIKORTASUNA

143.224 **Lurraldebusen Donostia-Zarautz autopistako lerroa erabili zuten bidaiarien kopurua, 2010eko lehen seihilabetealdian.**

+289% **Zarauzko auto kopuruaren hazkundea 1985 eta 2008 artean**

GARRAIO PUBLIKOAREN ETA JASANGARRITASUNAREN ALDEKO APUSTUA

- **Zarauzko autobus zerbitzua Lurraldebusen txartel bakarrean txertatu**.
- Donostirako **gaueko autobus zerbitzuak indartu**.
- **Zarauzko autobus zerbitzua hobetu**, maiztasunetan zein zerbitzuaren kalitatean, **geltokietan informazioa denbora errealean eskainiz**.
- Etorkizuneko estazio intermodalaren kokapenaren inguruko erabakia hartu, egungo tren estazioan edo Iñurritzako geltokian.
- **Bidegorri sarea hedatzen jarraitu**.
- **Bizikletentzako aparkaleku gehiago**.
- Irisgarritasun unibertsalaren alde egin eta hesi arkitektonikoak desagertarazi.

- **TAO sistemaren berrazterketa integrala** eta egungo egoeraren balantzea egin.
- **Parkingetan teknologia berriak** txertatu: abisuak, plaza libreen kopurua...
- **Udan disuasio-aparkalekuak jarri**.
- **Aparkalekuen plangintza orokorra**, bereziki Mitxelena, Itxas Mendi, eta Iñurritzarako.
- **Hondartzako aparkalekua hobetu**.
- **Autokarabanentzako aparkalekua.**
- **Vista Alegreko bizilagunekin batera auzoan eskailera mekanikoak jartzeko aukerak aztertzeko konpromisoa.**

EAJ PNV ZARAUTZ

6 HOBEKUNTZAK HERRIAN ETA ZERBITZUETAN

- **Landa-eremuetako eta baserrietako bideen mantenimendua hobetu eta berritu.**
- Azken Portuko urbanizazioaren bigarren faseari ekin.
- **Haurrentzako parkeak estali eta mantenimendua hobetu.**
- **Ebro Etxearen balizko erabilerak aztertu.** Artezaleak eta beste kultur eragileen jarduera babestu.
- **Tejeria eremuaren etorkizuna aztertu.**
- **Arrona Hermanos enpresa ondoko biribilguneko autobus geltokian markesina** jarri, eta beste puntuetan dagoen beharra aztertu.
- **Santa Barbara bidea konpondu eta zabaldu.**
- Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatu **Suhiltzaileen egoitza birkokatu** eta egun dagoen espazioa herriarentzat berreskuratzeko.
- **Komun autogarbigarriak**: Pilartxo Enea, biotopo igarobidea, Asti...
- Detaileak zaindu: hondartzan hankak garbitzeko gailu kolektiboak jarri.
- Herrian **beilatoki berria** martxan jartzeko lanak hasi elkarlanean.
- Herriko **sareen mantenimendua eta hobekuntza** (kanalizazioak, saneamendua...).

HAURREN PARKEAK ESTALI

BEILATOKI BERRIA MARTXAN JARRI

7 HONDAKINEN KUDEAKETA ETA INGURUGIROA

2014

Urtetako zabortegia aurreikusitako epean ixteko konpromisoa

- **Prebentzioaren aldeko apustua egin**, hondakinak sortzea saihestuz, eta **bilketa selektiboa, birziklapena eta berrerabilketa** sustatu.
- Bizilagunen artean **bosgarren edukiontziaren** (materia organikoa) erabilera **ohiko bihurtzeko** neurriak
- Udal Elkartearekin batera martxan jarritako **birziklapen egitasmoak indartu**.
- **Iñurritzako biotopoan egindako inbertsioa balioan jarri**, kontserbazio egokia bermatuz.
- **Energia berriztagarriak** sustatu udal-eraikinetan, BOEtan eta etxe partikularretan.
- **21 Agenda eta Aalborgeko printzipioekiko konpromisoa.**
- Udal-eraikinetan energia kontsumoa aurreztu eta eraginkortasuna areagotu.

Gure ingurunea da ONDARERIK BALIOTSUENA

8 GARBITASUN GEHIAGO

Herriko kaleetan zikinkeria murrizteko konpromisoa

- Udalaren **garbiketa zerbitzuen** plantilla eta ekipamendu materiala **indartu eta eraginkortasuna hobetu**.
- **Makinekin garbiketa areagotu, zenbait ospakizun eta jardueren ondoren bereziki**.
- Bereizitako **zakarrontzi gehiago** jarri bizilagunek hala eskatzen duten tokitan (malekoia, biotopoa, Asti...).
- Gizalegearen aurka doazen jokabideekiko tolerantziarik ez.
- Ekitaldi eta ospakizun publikoetan bereizitako hondakin ontziak jarri.

HERRIAN GARBIKETA AREAGOTU

9 SEGURTASUN GEHIAGO

- **Udaltzaingoaren kale-patruilen presentzia bermatu eta areagotu** herri-erdialdean zein auzoetan.
- **Udaltzaingoaren egoitza tokiz aldatzeko** gestioei ekin.
- **Polizia Administratiboa**: Web orri berria sortu Zarauzko Udaltzaingoaren barruan, aurkitutako objektuak eta berreskuratutako bizikletak ikusgai jartzeko, besteak beste.
- **Herri-Segurtasunerako Batzordea** sortu, ordezkari politikoen eta Udaltzaingoko ordezkarien parte-hartzearekin.
- Elkarlana ahalbidetzeko bideak finkatu Udaltzaingoaren eta Gizarte Zerbitzuen artean.
- Zarauzko Larrialdi Plana hobetu, egitasmo zehatzekin.

HERRI-SEGURTASUNERAKO BATZORDEA SORTU

EAJ PNV ZARAUTZ

10 KULTURA GEHIAGO

- Etorkizuneko **Arte Eszenikoen Zentroa birmoldatu,** mamiari eutsiz, eta egungo egoera ekonomikora egokituz. Ekipamenduari edukia eman, eragile, elkarte eta herritarren partaidetzatik abiatuta.
- Bitartean, ezinbestekoa da **behin-behineko ekipamendu eszenikoa** edukitzea, egun herrian dauden espazioak aprobetxatuz: Zinema frontoia, Lizardi, eta Modelo zinema. Gutxienez 300 lagunentzako tokia duen aretoa ahalbidetzea da helburua.
- **Sanz-Eneako ordutegiak zabaldu eta liburutegiko zerbitzuak hobetu.**
- **Musika Eskola bultzatu:** Villa Mundako sotoak birgaitu, bertako azpiegiturak txukundu, eta erabilerak aztertu.
- **Zarauztar sortzaileentzat lanerako eremu amankomunak ireki** (musikariak, idazleak, artistak) eta haien jarduera bultzatu, herriko kultur programazioan txertatuz.
- Kultur arloko lan baldintzak eta dirulaguntzen kudeaketa hobetu, herriko kultur elkarteekin elkarlan estuan.
- Teknologia berriak eta kultur ondarearen hedapena uztartzen dituzten ekimenak bultzatu eta horien garapenean lagundu.

ZARAUZTAR SORTZAILEENTZAT ESPAZIO KOMUNAK SUSTATU

MUSIKA ESKOLA BULTZATU

EAJ PNV
jakin eta egin

11 ZARAUTZ, EUSKARAREN HERRIA

Nota: 8,2457

Kontseiluak hamarren gainean Zarauzko hizkuntza politikari jarritako nota bere azken ikerketan. Euskal Herriko sailkapenean seigarren.

- **Euskara 21 – Itun berritu baterantz** txostenak eta **EBPNren bigarren plan estrategikoak** ezarritako lan ildoekiko konpromisoa.
- **Udal Euskaltegiko** aurrez-aurreko klaseei, autoikasketari eta diru-laguntzei bultzada.
- Herriko elkarte eta eragile desberdinekin elkarlanean jarraitu: AEK, EHE, Motxian, Tropela, Pagoeta....
- Ludoteka eta udalekuetako ordutegi eta zerbitzuetan etengabeko hobekuntza.
- **Bertako euskal hedabideak babestu.**
- **Literatur sari eta lehiaketen diru-kopuru eta ospeari eutsi.**
- **Euskararen Kontseilu Soziala dinamizatu.**
- **Bake-Epaitegiarekin elkarlanean aritu jaioberrien erregistroa euskaraz egikaritu ahal izan dadin.**

EBPNren bigarren PLAN ESTRATEGIKOA garatu

12 KIROLA, GURE IKURRETAKO BAT

7.510 **Polikiroldegiko abonatuen kopurua.**

- **Astin** kirol-gune baten sorrera barne hartu eta bertan egun dauden beharrei erantzuna emango dien **Plan Orokorra** onartu: errugbi zelaiko harmailen estalkia, kantina inguruen zaintza, futbol zelaiko iluminazioa eta aldagelen erreforma, besteak beste.
- **Atletismo pista berria** egiteari lehentasuna eman.
- **Lizardi institutuko kanpusa estali**, bertan bina eskubaloi eta saskibaloi pista jartzeko.
- **Vista Alegreko kirol pista** hobetu eta estali.
- **Hondartzan surf eskolak arautu.**
- **Eskola-kirola formakuntzaren ikuspegitik sustatu,** Foru Aldundiarekin elkarlanean.
- **Frantziskotarren Antonianotako kirol proiektua**ri bultzada eman.
- **Minusbalioa duten pertsonen kirol-praktika sustatzerakoan** aitzindari izan behar du Zarautzek.
- **Herriko kirol proba nagusiak ekonomikoki babestu eta ezagutarazi.**
- **Polikiroldegiko ikastaroen eskaintza indartu.**
- **Ikastolarekin akordioa** lortu bertako etorkizuneko **kirol-gunea** modu partekatuan erabiltzeko.
- **Golf kluba, ZKE eta ZAErekin akordioa lortu eta hitzarmena sinatu.**
- Osakidetzarekin elkarlan akordioa sinatu kirola-osasuna egitasmo bat behar duten gaixoak artatzeko.

KIROL INSTALAZIOEN HOBEKUNTZA

EAJ PNV
jakin eta egin

13 GAZTERIA

- **Gaztelekuaren** jardunari eta bertako jardueren onarpenari buruzko hausnarketa sakona egin, modurik egokienean bideratze aldera.
- Herrigintza eta elkartegintza sustatu, eta **aisialdiaren bankua** sortu, boluntariotza, elkartasun edo berrikuntza sozialeko jardueratan aritu nahi duten gazteentzat.
- **Gaztetxearekin elkarlanean aritzeko ekintzak eta bideak finkatu.**

HERRIGINTZA, BOLUNTZARIOTZA ETA ELKARTASUNA BULTZATU

14 TURISMOA

- Kalitatean, berrikuntzan eta irisgarritasun unibertsalean oinarritutako turismoaren aldeko apustua.
- **Turismoaren Aholkularitza Batzordea**ren barruan lan egin.
- **Turismo azoka nagusietan parte hartu, Euskal Kostaldea markaren barruan.**
- **Murkil eta Zurekin elkarteekin elkarlanean jarraitu.**
- **Aisialdi, kirol eta ikuskizun programazioa udatik haratago** bultzatzen jarraitu.
- **Hondartzako toldoak defenditu, Zarauzko ikur eta kultur ondare gisa.**
- **Landa-guneetan ibiltoki eta xendrak.**
- **Hileroko Azoka Abendañotik San Pelaiora** aldatu.

KALITATEA, BERRIKUNTZA ETA IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

Imanol Lasa Sarean

Imanol Lasa en la Red

EAJ PNV ZARAUTZ

sare

Bloga:	blog.imanollasa.com
Facebook:	facebook.com/imanollasa
Twitter:	www.twitter.com/imanollasa
Flickr:	www.flickr.com/imanollasa
Youtube:	www.youtube.com/imanollasa
Zuzeu:	zuzeu.com/author/Imanol-Lasa/
Berriketan:	berriketan.info/imanol/

HARREMANETARAKO / CONTACTO
943 00 51 32 / eaj-prentsa@zarautz.org

Imanol Lasa

SARE SOZIALAK ▪

redes sociale

e sozialak

zarautz

manol Lasa

Zarauzko EAJ-PNV Sarean

EAJ-PNV Zarautz en la Red

Web orria
Página web: www.eaj-pnv-zarautz.com

Facebook: lotura / enlace en www.eaj-pnv-zarautz.com

Twitter: twitter.com/eajpnvzarautz

S